

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2010	R9/2012	2012/07/02	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdaketa. Epez kanpoko planteamendua

R 9/2012 ebazpena  
10/2010 espedientea

Donostian, 2012ko uztailaren 2an,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordea bildu da, Batzordea Carlos Palao Taboada presidentek eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese kideek osatzen dute eta hau erabaki dute:

## ERABAKIA

1 ERAKUNDEA, IFK ----) sozietateak planteatu duen gatazka negatiboari dagokionez. Sozietate honek eskabidea egin du adieraz dadin zein den 2005eko ekitaldiari dagozkion BEZagatikiko kuoten konpentsazioa itzultzeko eskumenak dituen Zerga Administrazioa (nahiz eta, akatsa eginez, gatazkaren sustatzailea den erakundeak adierazi kuota horiek 2006ko ekitaldikoak direla); kuota horiek delako erakunde horrek zerga-egoitza lurralde erkidetik foru lurraldera lekualdatu aurretik sortu ziren. Gatazka Arbitraje Batzorde honetan izapidetu da 10/2010 espediente zenbakiarekin.

## I. AURREKARIAK

1. 2010eko martxoaren 29an 1 ERAKUNDEA sozietateak berezko gatazka jakinarazpena aurkeztu zuen (agiri batzuekin batera) Arbitraje Batzorde honetan, hain zuzen ere ez Estatuko Administrazioa eta ezta Foru Administrazioa ere ez zirelako eskumenduntzat jo erakundeak arestian aipatu den egoitza aldaketa egin aurretik konpentsatu gabe zeuden Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak itzultzeko.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2010	R9/2012	2012/07/02	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdaketa. Epez kanpoko planteamendua

2. Arbitraje Batzordeak, 2011ko martxoaren 29an egin zuen bileran, gatazka hori tramiterako onestea erabaki zuen eta, Ekonomi Itunaren Arbitraje Batzordearen Araudiko (EIABA) 13. artikularen 3. idatz-zatiak ezarri duenarekin bat, horren planteamenduaren berri ematea hala Zerga Administrazioiko Estatu Agentziaren (ZAEA) Eskuordetza Bereziari nola Bizkaiko Foru Aldundiari, eta bi erakunde horiei hilabeteko epea ematea espediente osoa igor zezaten. Dena dela, adierazi zitzaien gatazka ez zela tramitatuko baldin eta zergen arloan nahitaez bete beharrekoa zen horren jakinarazpena egin eta hurrengo bi hileen epearen barruan administrazioetako batek eskumena onartzen bazuen.

3. 2011ko apirilaren 26an sarrera eman zitzaion Arbitraje Batzorde honetan Bizkaiko Foru Aldundiaren idazki bati. Idazki horrekin batera administrazioiko espedientea zegoen. Hori ez ezik, sarrera eman zitzaion Ikuskapeneko Zuzendariordetzaren txosten bati; txostenean ziurtatu egiten zen aipatu diren BEZaren kuotak itzultzeko eskumenak dituen Administrazioa estatukoa dela.

4. 2011ko maiatzaren 4an ZAEAk idazkia erregistratu zuen Arbitraje Batzorde honetan; idazki horrekin batera administrazioiko espedientea zegoen. Baieztatu egiten du horretan gatazka ebazteko beharrezko agiri eta datu guztiak daudela jasota.

5. Bi Administrazio horien idazkiak kontuan hartuta, Arbitraje Batzorde honek, 2011ko maiatzaren 27an egin zuen bileran, erabaki zuen jakinarazpena egitea hala 1 ERAKUNDEAri nola bi Administrazioei, esanez Idazkaritzan zutela, eskuratzeko moduan, gatazkaren espediente bukatua. Adierazi zitzaien hilabeteko epea zutela euren ustez egokiak ziren alegazioak formulatzeko. Horrela egin zuten hurrenez hurreneko datetan (BFAk, 2011ko ekainaren 27an, ZAEAk uztailaren 6an eta, erakundeak, uztailaren 10ean).

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2010	R9/2012	2012/07/02	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdaketa. Epez kanpoko planteamendua

6. Espedientetik ondoko aurrekariak atera daitezke:

- 1 ERAKUNDEAK bere zerga-egoitza lekualdatu zuen Madriletik BIZKAIRA. Aldaketa 1996ko abuztuaren 19an egin zuen.

- Egoitza aldaketa hori gertatu ostean erakundeak BEZaren urteko laburpenaren 390 eredua aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Aldundian. Eredu horretan aurreko ekitaldietako konpentsatu beharreko kuotak zainpetu zituen, XX,XX pezetako zenbatekoan (gaur egun, YY,YY euro). Behin-behineko likidazioa agindu zen, 1997ko abenduaren 1eko data duena, eta horretan ez zen delako zenbateko hori sartu, Aldundi horrek interpretatu zuelako bere egoitza lurralde erkidean egin zen aldian zehar sortutako konpentsazio/itzulpenen eskumena Estatuko Administrazioarena dela.

- Ukapen horren aurkako berraztertze errekurtsoa aurkeztu zen 1997ko abenduaren 17an, eta hori ere ezetsi egin zen 1998ko ekainaren 6an. Ez dago jasota ukapen horren aurka inolako erreklamaziorik edo errekurtsorik aurkeztu zenik Bizkaiko Aldundian.

- Ukapen horren ostean, erakundeak, 1998ko uztailaren 1ean, Zergen Administrazioko Estatuko Agentziari eskatu zion itzulketa hori, eta ezetsi egin zen 1998ko azaroaren 20an, bere aburuz Itunari buruzko 12/1981 Legeko 28.1. artikulua ezarri duenaren arabera, itzulpen hori egiteko eskumenduna Bizkaiko Foru Aldundia delako. ZAEAREN ukapena eman zuen erabaki horren aurka berraztertze errekurtsoa aurkeztu zen 1998ko abenduaren 24an. Errekurtso hori ezetsi egin zen, hain zuzen ere 1999ko martxoaren 5ean.

Aldi berean, ezespen horren aurkako erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu zen, 1999ko maiatzaren 20an, Madrileko TEAREN. Horrek, 2001eko ekainaren 28ko data duen ebazpenaren bidez, epez

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2010	R9/2012	2012/07/02	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdaketa. Epez kanpoko planteamendua

kanpokoa zela adierazi zuen. Espedientean ez dago jasota epez kanpokoa izatearen adierazpen horren aurkako errekurtsorik aurkeztu denik.

- Urte batzuk igaro ondoren, zehatzago esanda 2004ko abuztuaren 30ean, erakundeak itzulketa egiteko eskabide berria aurkeztu zuen, kasu honetan Bizkaiko Foru Aldundiko BEZ Ataleko Zeharkako Zergen administratzaileari (ez dago inon jasota erantzun zaionik), bere aburuz hori egiteko epearen barruan zegoelako Madrileko TEAR-en 2001eko ekainaren 28ko ebazpenaren jakinarazpenetik itzulketa egiteko eskabidearen aurkezpenaren datara arte hiru urte baino gutxiago igaro zirelako (hori baitzen indarreko Bizkaiko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren idazkuntzan ezarrita zegoen preskripzioa).

- Berriz ere urte batzuk igarota, hain zuzen ere 2008ko apirilaren 18an, erakundeak okerreko sarreren itzulketa egiteko eskabidea aurkeztu zuen ZAEAn; oinarri moduan Auzitegi Gorenaren 2007ko uztailaren 4ko Epaia eman zuen; epai horren arabera kendu gabeko BEZaren gaindikinak berreskuratzeko eskubideak ez du iraungipenik. Euskal Autonomia Erkidegoko Zerga Agentziako Eskuordetza Bereziko Zerga Kudeaketako Erregio Bulegoaren 2008ko ekainaren 4ko ebazpenaren bidez, eskabidea ezetsi egin zen, besteak beste uste zuelako bera ez dela itzulketa horri ekiteko eskumenak dituen administrazioa. Ebazpen hori 2008ko ekainaren 23an jakinarazi zitzaion erreklamazio egileari.

- Ezespena eman zuen aurreko ebazpen horri aurkaratuz erakundeak erreklamazio ekonomiko administratiboa aurkeztu zuen, 2008ko uztailaren 23an, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Ekonomiko Administratiboan, eta 2009ko otsailaren 26an onartezina zela adierazi zen, hain zuzen ere erreklamazioa epaituta zegoen gai bati buruzkoa zelako, AEA erregional horren iritziz erakundeak berak, izaera berarekin

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2010	R9/2012	2012/07/02	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdaketa. Epez kanpoko planteamendua

eta administrazioeko ekintza beraren aurka, artean planteatu zuelako erreklamazio ekonomiko administratiboa eta hori, aurrean ere adierazi den bezala, 2001eko ekainaren 28ko ebazpenaren bidez ebatzi zelako, eta ez dago inon jasota horren aurkako aurkarapen judizialik egin zenik.

- 2008ko apirilaren 8an erakundeak oker jasotako sarrerak itzultzeko eskabide berria aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Aldundiko Ogasun eta Finantzak Sailean; eskabide hori ezetsi egin zen 2010eko otsailaren 5ean, erakundeak ez zuelako inolako itzulketarik eragiteko moduko sarrerarik egin. Ez dago inon jasota ebazpen horren aurkako errekurtsorik aurkeztu zenik.

## II. ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

1. Gatazka honen xede den eztabaida da erabakitzea zein den 2005eko ekitaldiari dagozkion BEZagatiko kuoten konpentsazioa itzultzeko eskumenak dituen Zerga Administrazioa (nahiz eta, akatsa eginez, gatazkaren sustatzailea den erakundeak adierazi kuota horiek 2006ko ekitaldikoak direla adierazi), ordaintzeko dauden saldoen itzulketa eskatu duenaren zerga-egoitzaren aldaketa egon denean lurralde erkidetik foru lurraldera.

Alderdi guztiek ezagutzen dute zein den Arbitraje Batzorde honek gai horri dagokionez –BEZaren saldoen lekualdaketa– duen doktrina. Auzitegi Gorenak baieztatu egin du doktrina hori (besteak beste, 538/2009 errekurtsio arruntean eman zuen 2011ko martxoaren 31ko Epaiaren bidez; errekurtsio hori Estatuko Administrazio Orokorrak jarri zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzorde honen ekainaren 19ko 11/2009 ebazpenaren aurka).

2. Bizkaiko Foru Aldundiak, 2011ko ekainaren 27ko txosten baten, gertaerak eta antzeko ustezko kasuetarako Arbitraje Batzordek izan duen irizpidea laburtu ondoren, azkenean esaten du itzulketari ekiteko eskumenak Estatuko

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2010	R9/2012	2012/07/02	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdaketa. Epez kanpoko planteamendua

Administrazioak dituela. Dena dela, aurretik ezetsi egiten ditu ZAEAk ez onartzeari ekiteko eman dituen arrazoiak, alderdia epaituta egotearekin eta zerga betebehardunak administrazioaren ukatzeko ebazpenak epaitegietan ez aurkaratzeari lotuta daudenak.

3. ZAEAk, 2011ko uztailaren 6an egin zuen txostenean, ez onartzeko hiru arrazoi eman zituen: a) gatazka epez kanpo aurkeztu zelako; b) irmotasuna irabazia zutelako gatazka planteatu aurreko ekintzak, eta c) okerreko sarrerak itzultzeko eskubidea iraungita zegoelako.

4. Ez onartzearen alde ematen dituen arrazoiak era bereiztuan azaltzen ditu, hiru zioetarako bana, alegia.

a) Gatazka epez kanpoko izatearen planteamenduari dagokionez, ondokoa alegatu du:

- EIABAko 13. artikulua, zerga administrazioen artean planteatzen diren gatazkak hasteko prozedurari buruzkoak, ezarri du "Administrazio guztiek uste badute ez direla eskumendunak, aldeztu aurretik Administrazio batek beste baten aldeko eskumenik-ezaren adierazpena egin beharko du eta, aldi berean, beste horren inhibitzeko erabakia", eta "gatazkak, eskumenik-ezari buruzko adierazpen horretatik zenbatuta, berriazko edo isilbidezko berrespenetik zenbatuko den hilabeteko epean sustatzea" eta "baldin eta Administrazio guztiek uste badute ez direla eskumendunak, eta baldin eta arestian aipatu den hilabeteko epearen barruan administrazio horietako batek ere ez badu jo Arbitraje Batzordearengana gatazka sustatuz", "nahiko izango da zergapekoak, hurrengo hilaren barruan, Batzordeari inguruabar horren berri ematea gatazka berez planteatu dela ulertzeko".

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2010	R9/2012	2012/07/02	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdaketa. Epez kanpoko planteamendua

- Ondorioz, gatazka aurkezteko eskumenik-ezen lehen adierazpenetatik zenbatu behar da, hots, Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan 1998ko ekainaren 6tik eta, Zergen Administrazioko Estatuko Agentziari dagokionez, 1999ko martxoaren 5etik.
  
- Areago esango genuke, ZAEAk bermatu egiten duelako, nahiz eta kontuan hartu aipatu diren eskumen-ezari buruzko adierazpen horiek gertatu zirenean Arbitraje Batzordea artean eratu barik egon, bada planteamendua bera ere epez kanpoko izango litzatekeela, gatazka ezartzeko epeak hori benetan eragingarria izan zenetik hasiko litzatekeelako; horren arabera, zergapekoarentzat aldekoena den epea hartuta, hori Arbitraje Batzordeari buruzko Arautegia EAOn 2008ko urtarrilaren 17an argitaratu eta hurrengo egunean gertatu zen. Horrek esan nahi du, ABAREN 13. artikulua ezarri duenarekin bat, epea 2008ko martxoaren 17an amaitu behar zela, eta kontuan hartuta gatazka planteatzeko idazkiari 2010eko martxoaren 29an eman zitzaiola sarrera Arbitraje Batzordearen erregistroan, planteamendu hori epez kanpoko da.
  
- Kasu hau, ZAEAk argitu du, desberdina Arbitraje Batzordeak ebatzi dituen beste batzuekin erkatuta, adibidez urtarrilaren 28ko R 2/2009 eta martxoaren 6ko R 4/2009, horietan gatazka Arbitraje Batzordea eratu aurretik planteatu zelako.
  
- b) Alegazio batek esaten du 1995ean jasandako BEZagatikiko kuoten itzulketa ezespena irmo bihurtu zela 2001eko irailaren 13an; baieztapen horri eusteko gertaeren arloko inguruabarrak azaltzen ditu:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2010	R9/2012	2012/07/02	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdaketa. Epez kanpoko planteamendua

- Erakundeaki ZAEArri eskatu zion 1995eko ekitaldian jasandako BEZagatiko kuotak itzultzeko; eskabidea ezetsi egin zen, hain zuzen ere 1998ko azaroaren 20an.

- Ezespena eman zuen ebazpenaren aurrean berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen, 1998ko abenduaren 24an. Hori ezetsi egin zen, 1999ko martxoaren 5ean.

- Berraztertze errekurtsoaren ezepen horri dagokionez, erreklamazio ekonomiko administratiboa aurkeztu zen, 1999ko maiatzaren 20an, Madrileko AEAEn. Horrek, 2001eko ekainaren 28ko ebazpenaren bidez, epez kanpoko zela adierazi zuen. Ebazpen hori 2001eko irailaren 13an jakinarazi zen.

- Erreklamazio ekonomiko administratiboa epez kanpoko zela adierazi zuen adierazpenaren aurka, erakundeak aukera izan zuen administrazioko auzi errekurtsoa aurkezteko, baina ez dago jasota horrelako errekurtsorik aurkeztu denik.

c) Azkenik, erreklamatu den eskubidea betearazteko epea preskribatuta egoteak eragiten duen gatazka horren ez onartzeari dagokionez, ZAEAk honakoa argudiatu du:

- 1999ko maiatzaren 20an, erakundeak Madrileko AEAEn erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu zuen dataren eta 2008ko apirilaren 8aren artean, data horretan aurkeztu zuen Bizkaiko Foru Aldundian okerreko sarrerengatiko eskabidea (ZAEAn 2008ko apirilaren 18an aurkeztu zen), aise gainditu da hala Zergei buruzko 1963ko Lege Orokorra ezarri duen bost urteko iraungitzeko epea nola Zergei buruzko 2003ko Lege Orokorra ezarri duen lau urteko epea



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2010	R9/2012	2012/07/02	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdaketa. Epez kanpoko planteamendua

eta, ondorioz, zergapekoak ezin du inolako ekintzarik gauzatu administrazioekiko.

5. 2012ko otsailaren 7an (ABn hurrengo egunean erregistratu zen), Bizkaiko Foru Aldundiak bere alegazioak aurkeztu zituen eta horietan berretsi egiten zuen bere ideia, hau da, itzulketari ekiteko eskumenak dituen estatuko administrazioa dela. Ideia horrekin bat dator 1 ERAKUNDEA eta horrela adierazten du 2012ko otsailaren 10eko data duen bere idazkian.

6. Azkenik, ZAEAk, Arbitraje Batzorde honetan 2012ko otsailaren 10ean erregistratu zen bere idazkian, baieztatu egiten du, nahiz eta gaiaren funtsari dagokionez Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziarekin bat etorri, ez dela ildo hori buruzko erabakirik hartu behar, berak errepikatzen duenaren arabera gatazka onartezina delako bere 2011ko uztailaren 6ko idazkian azaldu zituen hiru arrazoiengatik.

7. Bada, aurreko beste ebazpen batzuetan, adibidez 2/2008 eta 4/2009, Arbitraje Batzorde honek adierazi zuen EIABaren epeen sistemaren aplikazioaren "abiaburua dela organo hori era eragingarrian jardunbidean egotea gatazka sortzen zen unean, ez lukeelako inolako zentzurik edukiko gatazkek ebazteko Ekonomia Itunak ezarri duen bidetik Arbitraje Batzordearengana jotzeko aukera irauzgarria organoak horien berri izateko aukera errealak izan aurretik, eta ondorio hori, halaber, *pro actione* printzipioarekin bat dator". Hau guztia gorabehera, garrantzitsua da adieraztea irizpide hori gatazka aurrez planteatu zen kasuetan aplikatu dela, zehatzagoak izateko, Arbitraje Batzordea eratu eta onetsi baino urte batzuk lehenago, "eta, ondorioz, ezinezkoa zen horrek ezarritako epeak betetzea, segurtasun juridikoaren kalterik gabe bide honekiko atzipena prekluitzeko".

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2010	R9/2012	2012/07/02	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdaketa. Epez kanpoko planteamendua

8. Irizpide hori ezin da aztergai dugun kasu honetan aplikatu kasu honetan gertatu ez den abiaburuan oinarritzen delako, hots, gatazka Arbitraje Batzordeak horren berri izateko aukera erreala baino lehenago planteatzea.

Ezin da irizpide hori aplikatu, beste era batera esanda, ez delako antzinako gatazka, gatazka berria baizik, 2010ean plantatutakoa; hau da, Arbitraje Batzorde hau eratu eta bere jarduera eragingarriari ekin ostekoa; hori 2008ko apirilaren 4an gertatu zen. Beraz, data horretatik jarri zen abian gatazka aurkezteko epea, kontuan hartu behar delako ordurako bi administrazioek, berariazko eran, adierazita zutela bestea zela ordaintzeke zeuden BEZagatiko saldoak itzultzeko eskumena zuena; zehatzago esanda, gogoan eduki behar da Bizkaiko Foru Aldundiak egin zuen eskumenik ezaren adierazpena 1998ko ekainaren 6an gertatu zela, eta Zergen Administrazioko Estatuko Agentziarena 1999ko martxoaren 5ean. Beraz, baldin eta epea hasita bazegoen, ondorio moduan esan behar dugu arrazoia ZAEAk duela gatazkaren planteamendua epez kanpoko izateari dagokionez.

Aztergai dugun kasu hau "gatazka negatiboa" edo "berezko gatazka" da eta EIABAREN 13. artikulua ezarri du bidezko prozeduraren hasiera-epea, eta epe hori ez da bete, gatazka planteatzeko idazkiari Arbitraje Batzorde honetan sarrera eman zitzaionako 2010eko martxoaren 29an; horren arabera bide bakarra epez kanpoko izateagatik onartezina dela adieraztea da. Arestian aipatu den 13. artikulua ezarri duen epearen izaera preklusiboa da, eta horrek esan nahi du, gainditu denez, irtenbide bakarra hartu dugun hau dela.

9. Onartezina izate hori onestearen ondorioz ez da beharrezkoa onartezina izatearen beste bi arrazoiak aztertzea eta, aldi berean, ezin dugu gatazkaren funtsari buruzko iritzirik eman.

Hau guztia kontuan hartuta Arbitraje Batzordeak ondokoa

## ERABAKI DU

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
10/2010	R9/2012	2012/07/02	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	BEZ. Saldoen lekualdaketa. Epez kanpoko planteamendua

1 ERAKUNDEAK (IFK ----) 2005. urteari dagokion BEZaren saldoen itzulketari buruz planteatu duen gatazka ez onartzea, planteamendua epez kanpo egin delako.